

GIZA TALDEA

Langileen prestakuntzari eskaintzen diogun arretak pertsonak ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak bereganatzea eta eguneratzea erraztu nahi du, enpresak bere egindako estrategiari eta erronkei erantzuteko.

2018ko Prestakuntza Planak 345 prestakuntza-ekintza izan ditu, eta bere kostua 195.502 eurokoa izan da. Prestakuntza-ekintzak enpresako departamentu eta zentro guztietan egin dira, eta kolektibo profesional ezberdinen beharrei erantzuten dizkieten edukiak jorratzen dira. 2018ko Prestakuntza Planerako Enpleguan Prestakuntza hartzeko Estatuko Fundazioak 49.372,08 euroko dirulaguntza eman du.

2017-20/21 aldirako hitzarmena: prestakuntza-programak

Prestakuntza-programak	Helburuak	Baldintzak
Prestakuntza-premiak. I. Programa	Langileak berak egiten dituen lanetan edo bere lanpostuko berrikuntza edo proiektuetarako gaitzera zuzendutako prestakuntza ekintzak dira.	Enpresak bere egiten ditu kostu zuzen guztiak eta lan-jardunaldian egiten dira.
Mailaz igotzea laguntzea. II. Programa	Prestakuntza-ekintzak, barne-prestakuntzaren bidez lortzeko moduko mailetan, promozioetara aurkez daitezkeen langileak gaitzeko.	Enpresak bere egiten ditu kostu guztiak, irakasle, lokal eta materialei dagokienez. Lan-jardunalditik kanpo egiten da, eta denbora ez da itzultzen.
Interes pertsonala. III. Programa	Baliagarritasun profesionaleko ikastaroak, hau da, SCPSAren xede sozialarekin lotuta daudenak.	Gastu zuzenen %75, 750 euroraino pertsonako eta urteko, barnean hartuta kopuru horretan eta denboran langile batek interes pertsonalarengatik egiten dituen prestakuntza-jarduera guztietarako laguntzak. Ingelesa ikastea. Laguntzek muga ekonomiko gehigarria izango dute, 750 eurokoa pertsonako eta urteko, eta eskolen %75era joatearen eta/edo nahikotasunaren mende egongo dira eta prestakuntzako 1.500 ordutara mugatuta. Erabilitako denbora langilearen konturakoa izango da.
Euskara sustatzea	Euskara ikastea bultzatzea, bere balio kultural bereziagatik eta indarrean dagoen legeriarekin bat.	750 euroraino pertsonako eta urteko, eta eskolen %75era joatearen eta/edo nahikotasunaren mende egongo dira eta prestakuntzako 1.500 ordutara mugatuta. Gehienez, bertaratutako orduen %50 konpentsatuko dira, urtean 250 orduko muga izanda.

Interes pertsonaleko programa gure langileetako 59k baliatu dute, honako arlo hauetan: oinarrizko ikasketa zenbait, unibertsitate-ikasketak eta profesionalak; eta 22, ingelesa lantzen aritu ziren. Bestalde, 10 pertsonak jaso zituzten euskara ikasteko laguntzak.

Langileen prestakuntzari buruzko datu nagusiak

	2014	2015	2016	2017	2018
Prestakuntza ekintzen kopuru osoa	251	293	378	289	345
Bertaratze-kopurua, guztira	1.880	1.618	2.058	1.851	2.577
Bertaratze-orduen kopurua, guztira	13.087	13.132	17.887	15.338	15.214

Erabilitako lanorduak, guztira	11.562	11.607	13.755	13.268	11.411
Prestakuntza-ekintzen kostu zuzena (€)	186.487	207.645	227.615	171.516	195.502
Lanorduen kostua (€)	311.217	297.903	360.256	306.201	286.367
Kostu osoa (kostu zuzena+lanorduak) (€)	497.704	505.548	587.871	477.718	481.869

Langileen prestakuntzaren adierazleak

	2014	2015	2016	2017	2018
Prestakuntza-orduak, langile eta urte bakoitzeko	28,89	28,99	38,72	32,56	31,38
Prestakuntzan aritutako langileen %, plantillaren batez bestekoaren gainean	95,36	85,68	94,22	94,58	100,00
Lanorduen %, bertaratutako ordu guztien gainean	88,35	88,39	76,9	86,5	75,0
Prestakuntzarako inbertsioaren %, soldata-masaren gainean	3,45	3,12	3,53	2,82	2,73

Azkenik, praktika profesionalak sustatzeko Nafarroako hezkuntza instituzioekin adostutako hitzarmenen harira, gurean, 2018an, Lanbide Heziketako bi ikasle, Profesionaltasun Zertifikatuko bat eta unibertsitateko lau aritu dira praktika profesionaletan.